Liburuak oso tonu lasaigarria duela esan daiteke: yogari, janariari, hotsei..., tarte berezia eskaini diezu...

Alde batetik, Adelak duen janariarekiko ikuspegia ageri da azaletik, gehiegi garatu gabe. Adela budista baldin bada, pentsa dezakegu animaliak eta bizitza errespetatzeko ez duela haragirik jaten. Adela oso koherentea da, baita janariarekin ere. Soinuek eta hotsek, bestalde, nobela guztian betekizun handia dute; eta begiradek ere bai. Gogoetak eta begiradak. Kontakizuneko egoera dramatikoenetan ere, begiraden bidez halako jarrera meditatibo bat hartzen du kontalariak. Narratzailearen begiratzeko moduan badago meditazio jarrera bat. Liburua irakurtzean irakurle batzuek sentitu duten goxotasun hori jarrera meditatibo horretatik datorrela iruditzen zait.

Liburuaren amaieran drogak azalduko dira. Ilusioa galdu zuen belaunaldi nekatu baten ispilu moduan?

Ilusioa galdutako belaunaldia eta Europari ateak zabaltzean sartu zen zaborra elkartu dira. Adela Kataluniakoa da eta hango giroa ezagutu zuen. Garai hartan, diktaduran, Espainian zegoen hiririk irekiena zen Bartzelona. Drogen kontu horiek goiztiarragoak izan ziren han. Liburuan, kontu horri dagokionez, alde batetik defentsarik gabe geratu den belaunaldi baten porrota ageri da; beste batetik, mendebaldearen dekadentziaren zantzuak.

Kapitulu askori pentsalarien aipuekin eman diozu hasiera. Aipu horiek landu dituzu gero pertsonaien azalean...

Lehen esan dudan bezala, idazten hasi nintzenetik, bizitzako esperientziez gogoeta egitea izan da nire helburuetako bat. Eta, ondorioz, lan horren jarraipena da hau ere. Bestetik, pedagogia egin nahi izan dut; Adelaren paperean jarri eta gogoeta bultzatu. Hori ikuspegi ideologiko batetik egin nezakeen, baina jokabide hori ez dator bat nire oraingo pentsamoldearekin; aitzitik, gogoeta unibertsalen haria ekarri nahi izan dut. Literatura unibertsaleko idazle batzuen aipuetan ainguratu naiz. Gogoeta etiko, unibertsal horiek zabalik utzi ditut, irakurleak jarraipena eman diezaien. Nik tonua eman diot; `orain, egizu zeuk musika´.



> Guk, Beterrikook, segituan ezagutzen dugu hainbat txoko, detaile geografiko asko ematen delako: ibaia, aldapa…

Hizkuntza irakurterraza baina zaindua erabili duzu. Hitz bakoitza bere lekuan dagoela dirudi... Ahalegin berezia egin al duzu?

Ahalegin berezia egin dut, zalantzarik gabe. Orain arte egin ditudan nobelak gazteentzat izan direnez, nolabaiteko kontrol inkontziente bat izan dut haietan, irakurlea kontuan hartuta. Kasu honetan, oso modu zabalean hartu dut irakurlea, eta, beraz, kendu egin dut kontrol hura. Irakurterraztasun hori aurretik egindako lanaren ondorioa izango da. Haurrentzat eta gazteentzat asko idazteak izango zuen eragin hori, ziur asko. Xumetasun landua egiten saiatu naiz.

Izenburuak ere badu bere historia, ezta?

Liburuaren hasieran, `Zuek, hil zineten, atomo huts, hauts bihurtu zineten...´, Mikel Arregik idatzi eta Imanolek abesten zuen poema zatia aipatzen da. Oso esanguratsua izan zen garai batean kanta hura. Niretzat, Imanolen ibilbidean muga bat markatzen du; protesta edo kanta politikoak egitetik, kanta lirikoak egitera pasatu zenekoa. Indar iraultzaile hura hauts bihurtuta ere, beren burua deuseztatzera edo desagertzera egin ez zuten asko eta asko lirikan babestu ziren/ginen.

Liburua labur-labur definitu beharko bazenu?

Bizitzaren aurreko nire lekukotza ahalik eta zintzoena.

Liburua idazterakoan izan al duzu zailtasunen bat? Eta zerk sentiarazi zaitu gustura?

Niretzat tonuari eustea izan da lanik zailena. Tartean gauza asko dago; pertsonaien sinesgarritasuna oso garrantzitsua da, kontakizuna hondatu gabe gogoeta egitea… Alderantziz, pasarte poetikoek sentiarazi naute goxoen edo lasaien. Arlo horretan erraz mugitzen naizenez, gozatuz aritu naiz.

Zer moduz literatur txokoetan? Zein harrera erakutsi dute irakurleek?

Orain artean ez nintzen halakoetan ibili, eta, egia esan, esperientzia polita izan da. Irakurle saiatuak izaten dira eta interesa erakusten dute liburuaren aurrean. Liburua aztertzeko modu bat da hori; ez da iristen kritiko batek egiten duen irakurketa landuraino, baina aski sakontzen da, eta idazlearentzat ere ezustekoak diren aldeak topatzen zaizkio liburuari.

Aurrera begira, zer?

Haurrentzat ari naiz idazten orain. Batez ere itzultzen. Beste apustu gogorren bat..., aurrerago beharbada!

Aurreikusten al duzu nobela honen gaztelaniazko bertsiorik?

Ari naiz lantzen, baina zaila dago argitaratzen. Saiatu, saiatuko naiz. Gaztelaniaz, haur literaturan egin dut bide bat, baina horrek ez du batere eraginik helduentzat argitaratzeko. Ikusiko dugu.■